



AYUNTAMIENTO
VALLE DE ERRO
ERROIBAR
UDALA

Ctra. a Francia s/n
Frantziako errepidea z/g
31696 LINTZOAIN (Navarra)
Tel. 948768011
www.erro.es

CIF P3109100B IFK

AIRE ZABALEKO "ERROIBARKO EGUNA" I. PINTURA LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA: ERROIBARKO UDALA

Igandea, 2024ko uztailaren 21a

09:00-09:30: Izen-ematea eta zigilatzea.

13:00-13:30: Lanak aurkeztea.

14:00: Epaia irakurtzea eta sariak ematea.



AIRE ZABALEKO I. PINTURA LEHIAKETAREN OINARRIAK

"ERROIBARKO EGUNA"

ERROIBARKO UDALA

KATEGORIA: 16 URTETIK GORAKOAK

1. Nahi duen orok parte har dezake.
2. Lehiaketa 2024ko uztailaren 21ean izanen da (igandea) 09,00ak eta 14,00ak bitartean.
3. Gaia Sorogaingo parajearekin lotuta egongo da: paisaiak, txoko tipikoak eta lekuarekin zerikusia duen beste edozein gai.
4. Teknika librea izanen da.
5. Oihalen tamaina librea izango da, eta ezin izango da izan 100 cm baino gehiagokoa. Parte hartzaileek ekarritako oihalak uztailaren 21ean bertan zigilatuko dira Sorabilgo zelaian, 09:00etatik 09:30era bitartean. Euskarriak ez du aldeztu aurretik manipulaturik egon behar eta erabat hutsik egon beharko du.
Parte-hartzaileak astoa eta obra gauzatzeko beharrezkoa den material guztia ekarriko ditu.
Mihiseak aurkezteko eta zigilatzeke unean, parte-hartzaile bakoitzari ogitarteko bat eta freskagarri bat hartzeko txartel bat emango zaio, karpan jarritako barran 13:00etatik 13:30era hartzeko.
6. Bastidore edo euskarri zurrun baten gainean muntatutako obrak bakarrik onartuko dira.
7. Obrak zigilatu diren puntu berean entregatuko dira, 13:00etatik 13:30era
8. Ondoren, epaimahaia bilduko da, hautaketa bat egin eta dagozkion sariak emateko. Horiek hutsik gera daitezke, epaimahaiak hala uste badu.
9. Epaimahaiaren erabakia 14:00etan jakinaraziko da eta sariak banatuko dira.
10. Udalak izendatuko du epaimahaia, eta bere erabakia apelaezina izango da.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea eta epaimahaiaren erabakiarekin bat etortzea dakar.
12. **Sari** hauek emango dira: (indarrean dagoen zerga-legeria aplikatuz)
1goa.) 200 euro

Erroibar, 2024ko uztailaren 10a

Alkatea
Leire Remiro Esnoz



AIRE ZABALEKO I. PINTURA LEHIAKETAREN OINARRIAK

"ERROIBARKO EGUNA"

ERROIBARKO UDALA

KATEGORIA: HAURRAK

1. 16 urtetik beherakoek parte har dezakete.
2. Lehiaketa 2024ko uztailaren 21ean izanen da (igandea) 09,00ak eta 14,00ak bitartean.
3. Gaia Sorogaingo parajearekin lotuta egongo da: paisaiak, txoko tipikoak eta lekuarekin zerikusia duen beste edozein gai.
4. Teknika librea izanen da.
5. Lanen tamaina DIN A4 eta DIN A3 artekoa izango da. Pinturarako erabilitako euskarria uztailaren 21ean bertan zigilatuko da Sorabilgo zelaian, 09:00etatik 09:30era. Erabilitako euskarriak hutsik egon beharko du.
6. Obrak zigilatu diren puntu berean entregatuko dira, 13:00etatik 13:30era
7. Epaimahaiaren erabakia 14:00etan jakinaraziko da eta sariak banatuko dira.
8. Udalak izendatuko du epaimahaia, eta bere erabakia apelaezina izango da.
9. Irabazlea suertatzen den lana heldu den urteko ibarreko eguneko programan erabili ahalko da.
10. **Sari** hauek emanen dira:
1goa.- **50 euro eskola materialean.**

Erroibar, 2024ko uztailaren 10a

Alkatea
Leire Remiro Esnoz